

Euskarak CIP Donapea IIPn dituen trabak salatu dituzte

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 31/05/2025

Ikasleek jakinarazi dutenez, ikastetxean, 1032 ikasle dira; horietatik 133k D ereduan jarraitu ahal izan dute ikastekin eta D eredutik datozen 165 ikaslek gutxienez ezin izan dute.

CIP Donapea IIPko ikasle euskaldunak testu bat seinadurekin Hezkuntza Departamentuan sartu dute. Bestetik Arartekoari eskaera bera ere helarazi diote. Honetan, euskararen presentzia eskasa salatu dute.

Ikasleek jakinarazi dutenez, Donapean eskaintzen diren hamazazpi zikloetatik soilik lau dira euskaraz. Oinarrizko Lanbide Heziketan Administrazio-zerbitzuak eskaintzen dira, erdi mailako zikloetan Ibilgailuen elektromekanika eta Administrazio-kudeaketa, eta goi mailako zikloetan Administrazioa eta finantzak. Ikasleek salatu dute "euskarazko eskaintza urriak" behartzen dituela ereduz aldatzera eta Lanbide Heziketa nahi ez duten hizkuntza batean ikastera.

Honen adibide bezala jarri dute ikastetxean dituen 1030 ikasle inguruetatik soilik 133k izan dutela aukera D ereduan ikasten jarraitzeko eta gutxienez badirela beste 165 ikasle D eredutik ere etorri direnak. Hartara ikasleen herena D eredutik dator eta D ereduan ikasten jarraitu nahiko luke.

Gainera, euskara orientatzailea ikastetxera bi egunetan besterik ez dela etortzen salatu dute, ez baitu lanaldi osoa, eta ondorioz, zailtasunak dituzte besteak beste, praktika profesionalak bilatzeko eta lan-merkatura trantsizioa egiteko. Era berean, gaztelaniazko zikloetan matrikulatu diren D ereduko ikasleentzat euskarazko arreta eskatu dute, "ikastetxeko komunikazio-hizkuntza euskara izatea" nahi baidute.

<https://eh.lahaine.org/euskarak-cip-donapea-iipn-dituen>